

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, VISESA-EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA, EA SOZIJETATE PUBLIKOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA 2016

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den uztailaren 19an VISESA-Euskadiko etxebizitza eta lurra, E.A. Sozietate Publikoaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizazio txostena, 2016ko ekitaldiari dagokiona.

2016ko **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du.

Gainera, adierazi du VISESAk zuzentasunez bete duela 2016ko ekitaldian ekonomia eta finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, nahiz adierazi duen 5 kontratu espediente bakar batean lizitatu behar ziratekeela, sortetan banatuta hala bazegokion; halaber, prozedura ireki bidez esleitutako beste kontratu bat arautze harmonizatuari lotuta izapidetu behar zatekeen.